

# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai maiatzaren 24an

**Gerhard Richter. Itsas paisaiak**

## *Gerhard Richter* *Itsas paisaiak*

- Datak: 2019ko maiatzak 24–irailak 9
  - Komisarioa: Lucía Agirre, Guggenheim Bilbao Museoko arte arduraduna
  - 304 aretoa (hirugarren solairua)
- Hiru hamarkadatan zehar formatu, kolore eta estilo desberdinetako itsas paisaiak sortu ditu Richterrek: ostertzaren lerroa apenas igarri dakiokkeen itsas paisaia abstraktu batekin hasi, eta argi anbiguo batek soilik lausotutako zeruen fotorrealismoz betetako lanak etorri ziren gero.
  - Zeruek, hodeiz beteta edo erabat bare, mihisearen parte handi bat betetzen dute itsas paisaietan, eta gutxi batzuetan baino ez ditu itsasoak gaingintzen.
  - Richterrek irudi perfektua sortzea du xede: momentu desberdinetako itsaso bat eta zero bat baliatuz, ametsezko konposizio bat osatzen du, non perspektibak eta argiak ikuslea harrapatzen duen zerbait daukaten.

Guggenheim Bilbao Museoa *Gerhard Richter. Itsas paisaiak* erakusketa aurkezten du, artista alemaniarraren itsas paisaia entzutetsuen gaur arteko bilduma zabalenaz gozatzeko aukera paregabe bat. Richterren itsas paisaiak ez dira naturaren irudikapen soil bat. Ikuslearen pertzepzioari erronka egiten diote alde batetik, pintura argazkiaren pareko bilakatuta: azalera liso-lisoa lortzen du artistak, pigmentua asko diluituz, eta desfokuratu egiten du irudia, bat-bateko argazki batzuetan gertatu ohi den gisa. Bestalde, edertu egiten du paisaia Richterrek, perfektioa erdiesteko saiakeran; obra batzuetan bi irudi desberdinetatik datoz itsasoa eta zerua, eta bat egiten dute ia-ia trukagarri bilakatzeraino; hala, ikusleari uzten diote horietako bakoitza identifikatzeko lana.

Gerhard Richter Bigarren Mundu Gerra hasi aurretik jaio zen Dresden, guda bukatu zenean Ekialdeko Alemaniako parte izatera pasa zen hirian. Burdinezko hesiaren beste aldean garatzen hasitako informalismoarekiko eta espresionismoarekiko interesak bere jaioterria uztera eramanean zuen. 1961ean Düsseldorf finkatu zen, eta bertan ezagutu zituen Sigmar Polke, Blinky Palermo eta Konrad Fischer, beste zenbait sortzailearen artean. Nahiz eta Richterrek aurretiaz argazkietan oinarritutako pintura batzuk egin zituen, 1962tik aurrera egindakoak dira artistak berak bere lehen argazki-pinturatzat hartzen dituenak. “Hasiera berri” baten bila abiatutako bidean lan berri horiek inflexio-puntu dira bere karreran.

Itsasoak bere familia-albumetik zetozen erretratuertarako euskarri gisa balio izan zion hasiera batean. Aurrekari horien artean daude *Renate eta Marianne* (*Renate und Marianne*, 1964) edo *Familia kostaldean* (*Familie am Meer*, 1964) bezalako hondartza-eszenak; lehenengoan bere emaztea eta koinata aurkezten ditu harearen gainean eta bigarrena erretratu lauso bat da, non aitagarrebaren irudia gailentzen den. Beranduago, *Etzaulkia* (*Liegestuhl*, 1964) lanean, giza gorputza suma daiteke lausoki, eta aurreko obretan ez bezala, ez dago modeloa identifikatzerik. 1965ean paisaia txiki bat egin zuen, figurazioa eta abstrakzioa

tonu grisetan urtuz; atrebentziaz, esan liteke bere lehen itsas paisaia dela artelana: *Paisaia (Landschaft, 1965)*.

### Erakusketan barrena

Richterren obrak hain berezkoak dituen kolore grisak, ibilbide osoan zehar lagun dituenak eta berak “iritzirik gabeak” bezala definitzen dituenak, erakusketa honetako 1968ko *Itsas paisaia (Seestück)* izena duen lehen lanean ere aurki ditzakegu. Mihise gaineko olio-pintura bat da lana, tamaina txikikoa eta formatu oso horizontalekoa, zinemaskope baten lente anamorfikoetatik pasa balitz bezala. Zerumuga infinitu bat eta zurrunbilo txikiak ikus daitezke bertan; azken horiek apar zuria izan litezke, zeinetan pinturaren materialtasuna lodiagoa egiten den, artistaren pintzelkada agertzeko. Desertuko paisaia bat berdin-berdin irudika lezakeen obra baten aurrean gaude, baina izenburuak argi uzten digu ozeanoaren parean gaudela; argi lauso batez eta atmosfera hausgara batez inguratzen den ozeano bat. Hiru hamarkada eta mihise gaineko 22 olio-pintura daude figurarik gabeko itsas paisaia honen eta artistak 1998an margotu zuen azkenaren artean; Guggenheim Bilbao Museoaren bildumaren parte da obra hori. Urte horietan zehar tamaina, formatu, kolore eta estilo desberdinetako paisaiak aurkeztu ditu Richterrek. Hala, ostertzaren lerroa apenas igarri dakioken itsas paisaia abstraktu baten atzetik eta aurretik, argi anbiguo batek soilik lausotutako zeruen fotorrealismoz betetako lanak egon ziren. Zeruek, hodeiz beteta edo erabat bare, mihisearen parte handi bat betetzen dute itsas paisaietan, eta gutxi batzuetan baino ez ditu itsasoak gainditzen.

*Itsas paisaia (Olatua) [Seestück (Welle), 1969]* obran —Texaseko Fort Worth hiriko The Modern Art Museum-eko parte da—, gris tonu desberdinetako zeru nahasiak okupatzen ditu mihisearen bi heren, non argia agerpen jainkotiarra balitz bezala sortzen den hodeien artetik. Efectu hori, zeruko argiak itsasoan egiten duen proiektioarekin bat ez datorrelako sortzen dena ziur aski, ez da nahitakoa artistarentzako, argia naturako elementu bat gehiago dela uste baitu. “Inoiz ez zait argia interesatu. Argia hor dago eta piztu edo itzali egin dezakezu, eguzkiarekin ala eguzkirik gabe. Ez dakit argiaren problematika zein den” (MoMA Robert Storr-ekin elkarrizketan, 2002).

Itsas paisaietako batzuetan, bi argazki desberdinetan —bata zeruarena, bestea itsasoarena— oinarritutako collage bat du Richterrek abiapuntu, Gustave Le Grey ikerlari eta argazkilari frantsesak XIX. mendean egin ohi zuen bezala. Artistak, hala, irudi perfektua sortzea du xede: momentu desberdinetako itsaso bat eta zeru bat baliatuz, ametsezko konposizio bat osatzen du, non perspektibak eta argiak ikuslea harrapatzen duen zerbait daukaten. *Atlas* lanean daude erregistratuak fotomuntaia horiek, artistak 1960ko hamarkadaren hastapenetan abiatutako irudien artxibo entziklopediko zabala, ordutik zabalduz joan dena. *Itsas paisaia (Egunsentia) [Seestück (Morgenstimmung), 1969]* obran, zerumugatik sortzen den argiak ozeanoaren iluntasun absolutua eragozten du. Musée Départemental D’art Contemporain de Rochechouart museoko bilduman dago lana, eta *Itsas paisaia (oliba-koloreko hodeiekin) [Seestück (oliv bewölkt)]* lanaren formatu eta urte berekoa da.

Lehen lanean zerua urdin eta garbi agertzen den bitartean, bigarrenean urre-koloreko tonua hartzen du kotoi-itxurako hodeiekin, baina biek partekatzen dute autorearen eskua ezkututzen duen ikuskera bat. 1969koak dira baita *Itsas paisaia (hodeitsua) [Seestück (bewölkt)]* eta *Itsas paisaia (berde-grisaxka, hodeitsua) [Seestück (grüngrau, bewölkt)]* lanak, baina formatu karratuan eta tamaina handiagoan landuak;

bi paisaia guztiz desberdin dira, Nurembergeko Neues Museum, Staatliches Museum für Kunst und Design eta bilduma partikular batekoak, hurrenez hurren.

Asko dira Gerhard Richterren itsas erretratuak Caspar David Friedrich XIX. mendeko erromantizismoko paisaia-pintore alemaniarren lanekin alderatu dituzten kritikariak, bi artistek naturari aurre egiteko izan duten antzeko modua dela eta. Richterrek berak esan zuen elkarrizketa batean: “erromantizismoa guztiz interesgarria suertatzen zait. Nire paisaiek loturak dituzte erromantizismoarekin: batzuetan egiazko desira, erakarpena sentitzen dut epealdi harekiko, eta nire pintoretako batzuk Caspar David Friedrichi egindako omenaldiak dira” (Paolo Vagheggi-rekin elkarrizketan, 1999).

Richterren itsas paisaiak Friedrichen lanaren aurrean jarriz gero, *Monjea itsasoaren parean* (*Der Mönch am Meer*, 1809) mihisea bezalakoen kasuan bereziki, lehen begiratuan hauteman daiteke bi lanetan naturaren bikaintasuna agertzen dela; alabaina, Friedrichen koadroen eskala itzela ageriko bihurtzen da bere lanetan txertatzen dituen giza figurengatik; artean, Richterren itsas paisaietan, ez da ageri paisaiaren eskala erreala islatuko duen inolako erreferentziarik. Horrela, mihisearen tamaina da ikusleari itsas paisaiaren neurria ematen diona, zeinak, hein batean, monjearen papera hartzen duen.

Erakusketa honetako lanen artean nabarmentzekoa da *Itsas paisaia (Grisa)* [*Seestück (grau)*, 1969], itxurazko ezberdintasunaren ondorioz. Formatu txikiko pintura bat da, non pintzelkada abstraktu sendoek konkretua eta zehatza den oro desagerrarazi egiten duten itsas paisaiatik; hala, obra kolore gris hutseko mihise bilakatzen dute. Richterrek 1967an ekin zien pintura grisei, eta artistak berak “denen artean zorrozki ilusionistenak” bezala definitu ditu; hasiera batean, obra zehatz batetik abiatuta obra abstraktu bat eragiten duten mihiseak dira, irudi bat baliogabetu edo gorde nahiko balute bezala. Lanaren izenburuak eta gris desberdinen geruzetan hauteman daitekeen ortzi-mugak, ordea, itsas paisaia batera daramate ikuslea.

Aurrekoaren antitesia balitz bezala ia-ia, kotoi gaineko ikatz-ziriz landutako obra handi bat aurki daiteke erakusketan, *Itsas paisaia (Seestück)*, 1970); artelanak Vija Celmins artista letoniar-estatubatuarrek grafitoz marraztutako lehen ozeano eta itsasoak dakarzkigu gogora, eta ez du ortzi-mugarik: dena okupatzen du itsasoak, edo agian zeruak, eta ikusleak ez daki ondo non dagoen. Lan horrekin batera erakusten da grafitoz eta boligrafoz landutako 17 itsas paisaia dauzkan irudi txiki bat: gai berari buruzko bariazioak dira irudi horiek, *Atlas* bezalako beste euskarri batzuetan jasotako argazkiak ordezkatzeko dituztenak.

1998ko *Itsas paisaia (Seestück)* da Gerhard Richterrek bere ibilbidean egindako itsas paisaietan azkena, Guggenheim Bilbao Museoko Bildumaren parte dena. Lan horrek ixten du artistak gaiaren inguruan egindako ibilbidea. Paisaia horiek, Richterren berbetan, bere irrika baten berri emateko balio dute. “Ordena klasiko baten eta jatorrizko mundu baten ametsak sorrarazi baditu ere irudi hauek —nostalgiak, beste hitz batzuetan—, anakronismoak izaera subertsibo eta garaikidea hartzen du haien baitan”.

Irudia:

**Gerhard Richter**

*Itsas paisaia (Seestück)*, 1998

Olio-pintura mihise gainean

290 x 290 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

© Gerhard Richter, Bilbo, 2019

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta marketin saila

Telefonoa: +34 94.359 008

[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)

**Guggenheim Bilbao Museolari buruzko informazio guztia zure eskura dago [www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus) estekan (prentsa eremuan).**

Prentsak erabiltzeko irudiak  
**Gerhard Richter**  
Guggenheim Bilbao Museoa

**Irudien zerbitzua *online* prentsarako**

Museoko webguneko prentsaren atalean (prensa.guggenheim-bilbao.es) erregistratzeko aukera dago, bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko, bai erakusketenak eta bai eraikinarenak. Konturik ez badaukazu, erregistratu eta behar duzun materiala deskargatu ahal izango duzu. Erabiltzailea bazara, idatzi zure sarbide-izena eta pasahitza eta sartu zuzenean irudien deskargara.

- Emandako irudiak erakusketari lotutako publizitate editorialerako bakarrik erabili ahal izango dira.
- Beren osotasunean erreproduzitu beharko dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gauzatu gabe.
- Copyright kredituak agertu beharko du erreprodukzio guztien aldamenean.
- Sarean argitaratutako irudiek 72 ppi baino bereizmen baxuagokoak izan beharko dute eta irudiaren tamaina ez da 4.12 megapixel baino handiagoa izango (10 x 15 cm).

Informazio gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoko prentsa sailarekin, +34 944 359 008 telefono-zenbakira deituta edo [media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus) helbide elektronikora idatzita.

**Gerhard Richter**

*Itsas paisaia (Seestück)*, 1968

Olio-pintura mihise gainean

40 x 80 cm

Bilduma pribatua

© Gerhard Richter, Bilbo, 2019



**Gerhard Richter**

*Itsas paisaia (grisa) [Seestück (grau)]*, 1969

Olio-pintura mihise gainean

70 x 70 cm

Bilduma pribatua

© Gerhard Richter, Bilbo, 2019



**Gerhard Richter**

*Itsas paisaia (oliba-koloreko hodeiekin) [Seestück (oliv bewölkt)]*, 1969

Olio-pintura mihise gainean

80 x 100 cm

Bilduma pribatua, Italia

© Gerhard Richter, Bilbo, 2019



**Gerhard Richter**

*Itsas paisaia (berde-grisaxka, hodeitsua) [Seestück (grüngrau, bewölkt)], 1969*

Olio-pintura mihise gainean

140 x 140 cm

Bilduma pribatua

© Gerhard Richter, Bilbo, 2019



**Gerhard Richter**

*Itsas paisaia (Seestück), 1998*

Olio-pintura mihise gainean

290 x 290 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

© Gerhard Richter, Bilbo, 2019

